BERMEON ABANDONATU ETA KALEKO ANIMALIEK BATZE ETA ZAINTZE ZERBITZUA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK

I.- BALDINTZA OROKORRA:

1.- XEDEA

Bermeoko udalerrian animaliak batu eta zaintzeko zerbitzuaren kontratazio barruan honako prestazio hauek sartu beharko dira:

- Bertan behera utzitako edo galdutako animaliak batu eta eramatea.
- Batutako animaliei ostatua ematea, jagotea, jaten ematea, beharreko tratamenduak ematea animaliaren egoera ona bermatzeko, eta azkenik, lege-epeak gainditua, adopzioan eman.
- Bai bere kabuz zein era adostuan, batutako animaliak adoptatzeko elkarte babesleekin lankidetzan erraztasunak eman eta sustatzea, azken aukeran animaliak hil beharrik ez egoteko.
- Udal aginteren zein epaitegiaren aginduz batu beharreko animaliak hartu eta zaintzea.
- Bide publikoan hilda agertzen diren animaliak batu eta erretzera eramatea.
- Izaera orokorren, agiri hau txakur eta katuei buruz ari da, eta izaera berezi modura, beste edozein motatako etxeko zein konpainiako animaliarentzako ere eskatuko da zerbitzua.
- Zerbitzuarekin lotutako administrazio-kudeaketa guztiak eta herritarrei arreta.
- Udal langileei aholkularitza teknikoa ematea eta kontzientziatze eta sentsibilizatze kanpainetan parte hartzea (txipak, kaka batzea, portaerak, zainketa, arriskutsuak izan litezkeen animaliei buruzkoak, …).

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020
Datea: 14/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Bertan behera utzitako animaliak adoptatzea erraztuko duten proposamenak aurkeztea eta Udala informatzea animaliaren batek tratu txarrik jasan lezakeela detektatuz gero.

- Aholkularitza, gai honi buruzko tasak gaurkotzearen inguruan.

- Txakurren zentsua gaurkotzea, txakurren espezieko animaliak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2014 Dekretuak ezarritakoari dagokionean.

- Zerbitzuarekin lotutako gerta litezkeen bestelako gorabeherak.

2.- EREMUA ETA ARAUDIA

Zerbitzua emango den eremua Bermeoko udalerria izango da, bere baserri guneak eta mendiak ere barruan sartzen direla.

Aplikagarriak diren arauak honako hauek dira bereziki:

- Animalien babeserako urriaren 29ko 6/1993 Legea (EHAA 93/11/15).

- Gune zoologikoen apirilaren 11ko 81/2006 Dekretua (EHAA 06/04/25).

- Gune zoologikoen Dekretua garatzen duen 2008ko urtarrilaren 16ko Agindua (EHAA 08/03/07)

- Animaliak eduki eta babesteko udal ordenantza.

3.- ORDAINTZEKO ERA.

Esleipenaren zenbatekoa hilekoetan ordainduko da.

Udalak ordaindu ahal izateko, enpresa esleipendunak hilero aurkeztuko du faktura osoa emandako zerbitzuengatik, hilaren amaieran.

Enpresa esleipendunak fakturari erantsiko dio hilean egindako lanak azaltzen dituen txostena.

Fakturak esleipenean finkatutako kanon finkoaren eta aleko prezioen araberakoak izango dira.

Kanon finkoak enpresaren gastu orokorrak eta aleko prezioetan ez dauden jasota koste oro estaliko ditu. Urteko kanon finko hori hileroko fakturetan geratuko da jasota, bere zati proportzionalean (kanona/12).

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea

IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020

Datea: 14/11/2019

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Ohar garrantzitsua: Legeak finkatutako 30 eguneko epea gainditzen duten animalien kostuak, gainditze hori suertatzen den hilean fakturatuko dira, ez animalia batzen denean. Hau da, animalia horiek eragindako gastuak ez dira hilabete ezberdinetan zatituko.

Jabeak animalia berreskuratuko balu, enpresak emandako zerbitzuari buruzko txostena Bermeoko Udalera bideratu beharko du. Enpresari onartutako aleko prezioen arabera ordainduko zaio.

30 egunera egingo da ordainketa, onartu ostean eta hileko txostena Udaleko teknikariek on iritzia emanda.

Udal tasak

Udal tasen kobratzeko era errazteko, enpresa esleipendunak Udalak (Ekonomia eta Ogasun Sailak – Errentak -)emango duen inprimakia bete beharko du. Horrela, hileko fakturarekin eta zerbitzuaren txostenarekin batera aurkeztu beharko du Bermeoko Udalak dagokion prozedura bidera dezan.

4.- ENPRESA LIZITATZAILEK BETE BEHARREKO EGITE BALDINTZAK.

1.- Enpresa lizitatzaileek ziurtagiria aurkeztu beharko dute esanez zerbitzuan erabiltzeko jartzen duten gune zoologikoa behar den moduan ezarrita dagoela Erregistro ofizialean eta indarrean dagoela.

2.- Enpresa lizitatzaileek aurkeztu beharko dute baita, establezimenduaren jarduerari lotutako Udal lizentzia egokia.

3.- Enpresak araudiak eta plegu hauek eskatzen duten langileen titulazioa kreditatu beharko du. Langile hauek ordezkoak balira edo kontratuaren uneren batean joanez gero, langile berriek eskatutako titulazioa kreditatu beharko lukete.

4.- Kontratatutako zerbitzuaren lankidetzari dagokionean, enpresa une guztietan egokituko da Udalak emandako aginduetara lan teknikoari dagokionean, une bakoitzean Administrazioak ezarritako lehentasunezko helburuak oinarritzat hartuta.

5.- Udalaren eta zerbitzua emango duen enpresaren arteko harremana espedientearen zuzendaritzaren eta enpresa esleipendunak izendatutako pertsona ordezkaria edo koordinatzailearen bidez burutuko da.

Kontratuaren kontrola espedientearen zuzendaritzak eramango du. Honek emango dizkio enpresa esleipendunaren ordezkari edo koordinatzaileari beharrezko irizpideak.

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020
Datea: 14/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

6.- Kontratuan agertzen diren datetan edota, egoerak hala eskatzen duelako, Udaleko teknikarien aginduz, jarduerari buruzko txosten ekonomiko, deskriptibo eta justifikagarriak emango ditu.

7.- Kanpora zabalduko diren agiri guztiak elebidunak izango dira eta hizkuntza ez sexista erabilita.

8.- Udalak puntualki eskatzen dizkion bilera, topaketa edo ekintzetara joan beharko du enpresak.

9.- Batzarretako aktetan, enpresa esleipenduna agertuko da, ez inoiz, enpresa horretako langileria era nominalean.

10.- Soldatak ordaintzea, baimenak eta lizentziak, zerga betebeharrak ordaintzea, gizarte segurantza, jarraibideak eta honelakoak enpresa esleipendunaren erantzukizun esklusiboa izango da.

II.- PRESTAZIOAREN XEDE IZANGO DIREN ZERBITZU ETA INSTALAZIOETAN ESKATUTAKO EZAUGARRI TEKNIKOAK.

5.- ANIMALIAK UZTEKO ETA ATERPEA EMATEKO INSTALAZIOAK ETA BESTE BALIABIDE MATERIAL BATZUK

1.- Leku egoki batean kokatuta egongo dira instalazioak. Lizitatzaileek instalazioetako planoak aurkeztu behar dituzte. Instalazio hauek indarreko araudi aplikagarri guztia bete beharko dute eta, beti ere, araudiak eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

2.- Dependentziak beraienak edo alokatutakoak izan daitezke edo beste edozein legezko araubide onartu barruan egon daitezke.

3.- Animaliak egongo diren instalazioak egunero garbitu beharko dira eta beti egon beharko dira ondo zainduta, garbi, higiene eta kontserbazio egoera onean eta honako hauek eduki beharko dituzte:

- Kontratuaren xede diren animaliek ostatu izateko boxa kopuru egokia, horrela, leku nahiko izan dezaten eta erasoak, gaixoak kutsatzea eta beste honelakoak ekiditeko.

- Ur edangarria eta isurbide instalazioak inguruarentzako, pertsonentzako eta beste animalia batzuentzako kaltegarria izan ez dadin.

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020
Datea: 14/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Garbiketak egiteko, higienerako eta parasitoak kentzeko gunea. Leku honetan, beraien egoerak horrela eskatzen badu, zentroan sartzen diren animaliek arreta eta zaintza izango dute, barruan dauden beste animaliei gaixotasunik ez kutsatzeko.

- Albaitariaren gunea. Istripuak jasan dituzten animaliek behar den moduan zainduak izateko tresneria, makineria eta langileriarekin.

- Kontratuaren xede diren animaliek jolasteko gunea.

- Berrogeialdiak egiteko gunean behar den moduan hornituta eta beharrezkoa den isolatze mailarekin beste animaliak eta pertsonak babesteko kutsatze prozesuetatik.

- Administrazio, erregistro eta herritarrei harrera egiteko beharrezkoa den ekipamendu eta guztiko gunea.

- Osasun publikoarentzat arriskutsua izango ez den moduan kakak eta gernuak ezabatzeko sistema eta gogaitik ere eragingo ez duena.

- Erraustegi propioa, edo dagoen batekin konpromisoa izatea, hildako animaliak erretzeko.

4.- Esleipendunaren betebeharra da instalazio finkoak osotzen dituzten elementu guztiek behar den kontserbazio eta garbitasun egoeran mantentzea.

5.- Udaleko teknikariek edonoiz ikuskatu lezakete instalazioen egoera.

Erakunde esleipendunak gutxienez ibilgailu prestatu eta homologatu bat edukiko du. Honek, arauzko kaiolak eta konpartimentu itxi eta isolatuak edukiko ditu animalien batze eta garraiorako, beharrezko garbitasun, desinfekzio eta intsektuak kentzeko akzio guztiak burutuz, hura higiene eta osasun baldintza onetan mantentzeko. Aipaturiko ibilgailuak kanpoaldean Bermeo-ko Udalaren identifikazioa erakutsiko du.

Erakunde esleipendunak abisu harrerarako 24 orduko kontaktuko telefono zenbakia edukiko du, bere eskuragarritasuna bermatuz. Telefono zenbaki hau dokumentazioaren ematearekin batera eman behar da eta egonkorra izan behar du kontratuaren iraupenean zehar. Aipatutako zenbakiaren edozein aldaketa Bermeoko Udalari idatziz komunikatu behar zaio, aldaketaren aldez aurretik.

Erakunde esleipendunak Interneteko konexioa eta dokumentazioaren ematearekin batera eman behar den eta kontratuaren iraupenean zehar egonkorra izan behar duen helbide elektronikoa edukiko ditu. Honen edozein aldaketa Bermeoko Udalari idatziz komunikatu behar zaio aldaketaren aldez aurretik.

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERVIRE

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020
Datea: 14/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Halaber, animalien bilketarako beharrezko baliabide guztiak izan beharko ditu, mikrotxipak identifikatzeko irakurgailu unibertsala eta zerbitzuaren prestazio egokirako beharrezkoak izan daitezkeen beste baliabide batzuk bezala.

6.- OSTATU-ZERBITZUA ETA ANIMALIEN ARDURA.

Erakunde esleipenduna ostatuaz eta ostatuan jasotako animalien mantenuaz arduratuko da.

Ostatua, gutxienez, astelehenetik ostiraletara 11:00-tik 13:00-arte eta 16:30-tik 18:30-arte egongo da jendeari irekita eta larunbatetan 11:00-tik 13:00-arte informazioa eman, bisitez arduratu edo eskainitako zerbitzuekin erlazionaturiko kudeaketez arduratzeko.

Animaliei ostatu ematen dien tokiek beti izan behar izango dute ardura eta garbitasun irudi bat.

Hartarako, eta indarreko araudiaren arabera, erakunde esleipendunak higiene, osasun eta elikadura baldintza egokiak bermatu behar izango ditu Ostatuko animalia guztientzat.

Ostatuan sartzen dituzten animaliak ikuskatuak behar izango dute eta beren egoerak eskatzen badu parasitoak kentzeari, desinfekzioari eta bere sarreraren ondorengo berehalako garbiketari ekingo zaio, jada sartutako animaliei kutsatze posibilitateak saihesteko asmoz.

Egunero hornitu behar izango da animalia gaixoentzako beharrezko botika eta sendaketez eta animalien osasun egoeraren prebentzio behaketari ekin beharko dio.

Albaitari batek landutako higiene eta profilaxiko programa bat eduki beharko du, bere dokumentazioaz batera aurkeztu behar izango duena.

Jarduera hauetan nahitaezko adierazpeneko edozein gaixotasunen agerpena izatekotan, bai foru organo eskudunei bai Udal osasun zerbitzuei, jakinarazi behar izango zaie antzeman bezain laster eta beti indarreko legeriak ezarritako epean.

Zirkunstantzia bereziren kasuan (segurtasunekoak, sanitarioak...) animaliak sakrifikatu behar izatekotan, aurretiaz albaitariaren edo, bere kasuan, baimendutako pertsona hezitzailearen txosten bat aurkeztu beharko da, Udalaren gainbegiraz batera.

Enpresa esleipendunak animalia jatorrizko Udaleko hasierako bilketatik 30 egun natural epean mantenduko du, bilketan eskainitako kontratuaren kontura. Behin epe hori igarota, animalia erreklamatu gabe badago, esleipendunak legeak finkatutakoa jarraituko du, beti ere adopzioan emateko aukerari lehentasuna emanez.

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020
Datea: 14/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Beren identitatea egiaztatu ondoren jabeari itzuli behar zaizkion jasotako animalia guztiak, berari edo berak izendatutako pertsonari soilik eman ahal izango zaizkio, bigarren kasuan jabeak aurretiaz baimena idatziz halako zentzuan eman badu.

Bermeoko Udalaren erantzukizunpeko animalia hartzeak, ezin izango du izan animalia hartzen duenarentzat, udal ordenantza fiskalek zehazten duten kostua ez den beste kosturik.

Erakunde esleipenduna arduratuko da animalia hartzen duen pertsona argi eta garbi identifikatua izateaz, lege betekizunak betetzeaz eta honek dokumentu espezifikoa sinatzeaz animaliaren lagapenerako. Halaber, derrigortuta dago Udalari honen berri ematera.

Ostatuan sartzen den animaliak identifikazioa eramango balu, Udalak bere bilketa edo erretentzioa jakinaraziko dio jabeari, hura berreskuratzeko 7 egun balioduneko epe bat edukiko duelarik, tasa egokiak ordainduz.

Indarreko araudia betez, legalki identifikatuta egon behar duten animalia guztiak ostatutik mikrotxip identifikatzailearekin irtengo dira.

Zendu ahal diren edo sakrifikatu behar diren animaliak, baita bide publikoan hilda jasotzen direnak, erraustuak izango dira. Hau dela eta, enpresa esleipendunak haien errausketak egiaztatzeko agiriak eduki behar izango ditu eta Udal honen eskura izan beharko ditu kontratuaren iraunaldi guztian zehar.

7.- ANIMALIA BILKETA ZERBITZUA.

Enpresa esleipenduna arduratuko da Udalaren pertsonalaren, Udaltzaingo, zaintzaile edo pertsonal teknikoaren abisuez, urteko lanegun guztietan zehar eta 8:00-tik 20:00-tarako ordutegian edo berezko enpresaren ikuskapen erronden bitartez.

Abisuaren harreratik enpresaren pertsonala eskatutako lekuan aurkeztu arte, ezin izango da 90 minutu baino gehiago igaro, abisua astelehenetik ostiraletarako 8:00 eta 20:00 orduen artean jaso izanez gero.

Abisua larunbatean edo jaiegunean jasoko balitz, edota 20:00 orduak eta hurrengo goizeko 8:00 orduak bitartean, erantzun marjena 120 minutukoa izango da.

Enpresa esleipenduna kontratu objektua den edozein animaliaren bilketaren erantzulea izango da hura Bermeoko Udal muga barruan utzita aurkitzen bada eta honetarako beharrezkoak diren berezko baliabideak erabiliko ditu.

Jasotako animaliak identifikatuko balira, bere jabeei emango zaizkie eta dagozkien udal tasen ordaintzeko prozedura bideratuko da. Udalaren aldetik emandako abisutik

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020
Datea: 14/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

2 orduko gehieneko epean animaliaren jabeak edo baimendutako pertsonak bere baliabideekin animalia jaso beharko du.

Hartutako abisu bakoitzeko txosten bat egingo da, Udalari 24 orduko epean posta elektronikoaren bitartez igorriko zaiona. Bertan, gutxienez, abisuko harrera ordua, eskatutako lekura helduera ordua, esku-hartze mota, tarteko animaliaren ezaugarriak, animaliaren argazkia eta gertakariari emandako konponbidea zehaztuko dira.

Enpresa esleipendunak animalia hilen bilketa zerbitzua edukiko du, batez ere txakurrak eta katuak batzeko, bide publikoan daudenean. Kasu hauetan, behin animalia jasota, beraren identifikazioa baimentzen duten pauso guztiak egiteari ekin behar izango diote; animaliaren argazkiak egin behar izango dituzte, mikrotxipa ezarrita daraman ikusi edo beste identifikazio motaren bat duen egiaztatuko dute eta azkenik bere errausketari ekingo diote.

8.- GORDETAKO ANIMALIENGANAKO BALIABIDE PERTSONALAK ETA ALBAITARIEN ARRETA

Enpresa esleipendunak zerbitzurako beharrezkoak diren bai zuzen eta bai zeharkako giza baliabideak izango ditu. Hauek, kontratuaren objektu diren lanen betetzea ziurtatzeko eta gaixotasun edo istripu bajak, absentismo laborala, baimenak, lan sindikalak, oporrak edo justifikatutako beste kausa batzuek eragindako behin-behinekotasunak betetzeko erabiliko dira.

Potentzialki arriskutsuak diren animaliekin harremanetan dagoen pertsonal guztiak, *potentzialki arriskutsuak diren animaliak edukitzeko Lizentzia administratiboa* eduki beharko du.

Udalak ez du harreman juridikorik, lanekorik edo beste inolakorik izango enpresa esleipendunaren pertsonalarekin, ez kontratuaren iraunaldian ezta beraren amaieran. Langileen kontratazioak, kalte ordainketak eta kontratu honengatik agertu ahal diren erantzukizun guztiak enpresaren kontura izango dira.

Esleipendunak kontratatutako pertsonal guztia Gizarte Segurantzan alta emanda eta kuoten zenbatekoaren jakinean izango du. Honetaz gain, begietsitako lanen betetzean hirugarrenekiko kalte posibleak estaltzen duten beharrezko erantzukizun aseguruak itundu beharko dituzte.

Enpresan grebarik edo gatazkarik egotekotan, Udal honek edo goiko mailako beste organismo administratibo batzuek ezartzen dituzten gutxieneko zerbitzuak hartu eta burutu behar izango ditu. Zerbitzuaren esleipendunak berezko edo kontratatutako, albaitarien asistentziako zerbitzu era bateko edo partzialaren antolamendua ziurtatuko du, pertsonaren edo osatzen duten pertsonen izena eta beren curriculuma aurkeztuta.

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020
Datea: 14/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Albaitarien kolegiatutako pertsonalaren zerbitzuen barruan, diagnostikoa eta sartzen diren eta zentroan gelditzen diren animalien ardura daramatenak egongo dira. Hauek, beharrezkoa denean, osasun baldintza egokietan ez daudenen sakrifikatu behar izana erabakiko dute. Zerbitzu hauek egindako eutanasiez arduratuko dira.

Aipaturiko albaitarien pertsonala baimenduta egon beharko da, animalien identifikazioa mikrotxip egokiaren ezarpenaren bitartez bermatzeko, osasun egiaztapen ofizialeko agirien igortzerako, animalien arriskugarritasuna balioesten duten txostenak egiteko, gero hauen bidez potentzialki arriskutsuak diren animaliak katalogatzeko, baita animalia bat baldintza berezien mendean jarri behar dela ezartzen duten txostenak egiteko.

Zerbitzu honek jasotako animalien gainean egin beharreko txostenek ez dute kostu gehigarririk izango Udal honentzat.

9.- ZERBITZUEN ADMINISTRAZIOA.

Zerbitzuaren esleipendunak eragindako alten eta bajen eta edozein gertakariren eta zerbitzuen prestazioari buruzko gainerako datuen kontrol sakona eramango du.

Hartarako, gutxienez Liburu Erregistro bat eduki beharko du, bertan animalia bakoitza agerian jarriko duen izaera sakonik gabeko informazioa batuko delarik:

- Sartzen den animalia mota, argazkiarekin batera.
- Animaliaren ezaugarrien deskribapena.
- Data eta sarreraren zergatia.
- Animalia uzten duenaren datuak edo bere utzikeria jakinarazi zuen pertsona.
- Bere egonaldiari buruzko oharrak.
- Jabearen bilketa, adopzio edo sakrifiziorik egotekotan: data, erlazionatuen datu pertsonalak eta egindako prozeduraren deskribapena.

Liburu Erregistro hau Administrazio eskudunen esanera aurkituko da.

Enpresa esleipendunak, Udal arduradunari fakturarekin batera Hileroko Txostena igorri behar izango dio, bertan agerian jarriz:

- Egiten diren adopzio edo sakrifizioen kopurua eta Ostatuan gertatutako alten eta bajen kontrola eramateko beharrezko datuak.

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020 12:01:55
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020
Datea: 14/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Abisuen harrera, ordua kontuan hartuz, jakinarazpen kopurua, helduera ordua, animaliaren ezaugarriak eta esku hartze mota gertakariaren emaitza adieraziz.

Urteko azken hilabetean urteroko txosten bat igorriko da bertan gertakari guztiak eta aurreko urteekiko sarrerei, irteerei, identifikazioei, larrialdi zerbitzuei, ostatuko egonaldi egunei, errausketei, esterilizazioei... buruzko konparazioak agertuko direlarik. Txosten honek, zerbitzua, bizikidetasuna eta animalientzako tratu onari dagokion hobekuntza proposamenak emango dizkio Udalari.

Halaber enpresa esleipendunak animalia identifikazioaren mantenuaren arduraduna duen erakundeari alten, bajen, titulartasun aldaketen edo mikrotxipen jartzeei buruzko informazio egokia igortzeko bere legezko beharra beteko du.

10.- ZERBITZUAREN IKUSKAPENA

Zerbitzuaren esleipenduna beti egongo da Udalak egokia dirudien edozein errekerimendu edo gehigarrizko datuen eskakizunak betetzeko prest, kontratua betearazteari dagokionez, Bermeoko Udalaren dagokion Departamentuaren ikuskapenera eta zainketara era iraunkorrean menderatuta geratuz, hauek estimatzen duten berrikusteak egin ahal izango dituztelarik, edozein unetan eta lekuan.

Efektura izendatzen den ikuskapenak lokaletarako eta zerbitzuarekiko mendekotasunetarako sarbidea izango du eta antolaketari eta beraren egiteari buruzko behar ditzan datu guztiak erraztuko zaizkio.

Kontratupeko enpresa behartuta geratzen da behar hau betetzeko, batez ere, gizarte aseguruak, laneko istripuak, aseguru polizak eta instalazio eta materialarekin erlazionatutako dokumentu guztiak erakusteaz, eta oro har, Udalaren edozein erantzukizun subsidiario saihestera bideratutako jarduera guztiak baimentzera.

11.- KATUEN KOLONIAK. "CES" PROGRAMA

11.1.- LIZITAZIO FASEA

Enpresa lizitatzaileak herrian zehar solte dauden katuen kontrolerako katuen kolonien ezarpenerako proposamen bat aurkeztu beharko du.

Aurkeztutako proposamena lizitazioaren irizpideetan adierazitakoaren arabera baloratuko da.

11.2.- KONTRATU FASEA

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020
Datea: 14/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Esleipenduna, beti ere Udalaren laguntzaz, katuen koloniei buruzko antolaketaz arduratu beharko da, hau da, programaren kudeaketa eta lidergoa enpresarena izango da, "CES" programaren aplikazioaren fase ezberdinetan, boluntarioekin harremanetan eta koordinazioa eramatea, ea.

Egin beharreko esku hartzeak, aurrekontuaren eskuragarritasunaren arabera martxan jarriko balitz, baldintza orri administratiboetako IX. eranskinean adierazitako aleko prezioak aplikatuko lirateke.

12.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BESTELAKO BETEBEHARRAK

Enpresaren betebeharra, Udalaren kontrolpean dauden animalien kargu egitea izango da kontratatuaren instalazioetan, kontratu berria astearekin batera.

Animaliak, kontratua sinatu ondoren eta 48 orduko epean, eraman beharko ditu bere instalazioetara bere baliabideekin.

Hauek dira 2019ko azaroaren 27an Bermeoko udalaren izenean dauden animaliak AIEO/REGIA erregistroan (16):

- Txakurrak: -12 (4 PPP)-
- Katuak: -4-

Bestalde, enpresa behartuta egongo da Udaltzaingoak adierazitako kideei formazioa emateko, zerbitzu eraginkorra lortze aldera. Horretan, batze, lotze, zaintze eta mikrotxipen irakurtzeko teknikak landu beharko dira.

Zerbitzu saileko teknikaria

Data eta sinadura orri oinean

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40003856700F3X1V3W9P7X1

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 17/01/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/01/2020 12:01:55

EXPEDIENTE :: 2019KON_IRE_0020
Datea: 14/11/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia